OLABIDE IKASTOLA

Vitoria-Gasteizen, 2007ko martxoaren 1ean

Agur gurasook:

Martxoaren 16an Korrika Txikia izango da Gasteizen eta horren aitzakian Ahotsu etorriko da Olabide ikastolara goizean, ekintzen egitaraua hemen duzuelarik.

Gasteizko Korrika Txikia arratsaldeko hirurak eta laurdenetan hasiko da eta Olabideko **Lehen Hezkuntza eta Haur Hezkuntzako 5. eta 6. mailako umeei** egokitu zaien bidearen zatia Ramón eta Cajal kaletik (Canciller Ayala hotelean) Senda ibiibidetik Manuel Iradier kaleko Fremaperaino da.Lekukoa 16:35ean hartuko dugu baina ordu erdi lehenago elkartuko gara , **16:00etan Senda pasealekuan, Canciller Ayala hotelaren ondoan**. Haur Hezkuntza ko 3. eta 4. mailako parte hartu nahi duten ikasleak Manuel Iradier Dato kalearekin bat egiten duen ertzean elkartuko dira, Dato kaletik Korrika egin ahal izateko 16:15etan gurasoekin Korrika egiteko. Ikasleek ekintza honetan parte hartu ahal izateko, ikastolan egindako petoaz jantzita eta autobuseko txartelaz etortzea komenigarria da. Gurasook Korrikaren ibilbidea egin nahi izatekotan, alboetatik joan, mesedez, errepidetik bakarrik ikasleak, irakasleak eta antolaketan lagunduko diguten batxilergoko ikasleak joango dira. Ibilbidea bukatuta, **16:50 inguruan jaso behar dituzue umeak Posta kalean Postetxearen alde batean Plaza Berrirako sarreran**, ordu horretan Foru Plazan hasiko den jaialdira beraiekin joan zaitezketelarik. Antolaketa eta seguritate beharrei behar bezala erantzuteko, ezin izango dituzue zuen seme-alabak lehenago jaso, eta egitekotan, jakinaren gainean jar ezazue zuen seme-alabaren irakaslea.

Egun honetan Olabiden ez da HH eta LHko eskolaz kanpoko ekintzarik egongo, DBHkoak, ordea bai.

Jantokia zabalik egongo da.Zerbitzu honetako autobusak 15:00etan aterako dira. Jantokia ostiralero erabiltzen ez duten ikasleek erabiliko duten geltokia telefono hauetan: 629060637 eta 945011969 esan beharko dute honako ordutegian: 9:00etatik 15:00etara.

Ostiralero jantokia erabili eta hilaren 16an Ikastolan bazkaltzeko asmorik ez dutenek eta 12:40an garraoia erabili nahi dutenek idazkaritzako Zuriñeri esan biezaiotela 13:30etatik 17:30etara (telef. 945011965 ; email zgonzalez@olabide,com).

Estimadas familias:

El día 16 de marzo se va a celebrar la Korrika Txikia en Vitoria-Gasteiz y, con ese motivo, Ahotsu nos visitará por la mañana en la ikastola. Junto a esta carta os enviamos el programa de actos de ese día.

La Korrika Txikia empezará a las tres y cuarto de la tarde y el tramo que les ha correspondido **a los alumnos de 4 y 5 años de Ed. Infantil y a todos los de Ed. Primaria** es desde la calle Ramón y Cajal frente al hotel Canciller de Ayala por El Paseo de La Senda hasta Freemap en la calle Manuel Iradier. El testigo lo tomamos a las 16:35 aunque nos reuniremos **a las 16:00 en el paseo de la Senda al lado del Hotel Canciller Ayala**. Los alumnos de 3º y 4º de Ed.Infantil que estén interesados en participar se reunirán en la esquina Manuel Iradier con Dato, para ir con la Korrika por la calle Dato. Deberán ir acompañados de sus padres. Es conveniente que todos los participantes lleven ese día el peto hecho en la ikastola y la txartela del autobús. Los padres que queráis acompañar a vuestros hijos en la Korrika hacedlo por el margen del recorrido, ya que en la Korrika sólo irán los alumnos junto con los profesores y los alumnos de bachiller que se ofrezcan a ayudarnos. Una vez terminado el recorrido, **tenéis que recoger a los alumnos hacia las 16:50 en la plaza de Correos junto a la entrada de la Plaza Nueva** para ir con ellos, si queréis, a la fiesta que organiza la Korrika en la plaza de Los Fueros. Por seguridad y organización no podréis recoger antes a vuestros hijos e hijas, y si lo hacéis, notificádselo al tutor o tutora de su clase.

Este día no habrá actividades extraescolares en Ed. Infanti y Primaria. Las actividades extraescolares en Secundaria se mantienen.

El servicio de comedor se mantendrá. Los autobuses de comedor saldrán a las 15:00. Los alumnos que no utilicen habitualmente este servicio de autobús deberán comunicar en el teléfono de comedor, 629 060637 y 945 011969, de 9 a 15:00 horas la parada que utilizarán.

Los usuarios de comedor que el viernes día 16, no se vayan a quedar a comer en Ikastola, y vayan a hacer uso del transporte a las 12:40, deberán comunicarlo en administración a Zuriñe en horario de 13:30 a 17:30 (tel 945011965, email: zgonzalez@olabide.com)

Bestalde, Korrikan gure ikasleak zaintzeko prest zaudeten gurasook edota Foru plazan egongo den jaialdian bokatak banatzeko prest zaudetenok, beheko aldean idatz ezazue. Antolaketa errazteko , aldez aurretik jakin beharko genuke zenbat eta zein ume etorriko den Korrikara.Beraz, Korrikara etortzeko asmoa duten ikasleen izen –abizenak idatzi eta tutoreari eman martxoaren 8a baino lehenago.

Korrika Txikiaren giroan murgiltzeko, ikasleek egindako marrazkiak Hegoalde gizartetxean martxoaren 5etik 18ra arte erakusgai egongo dira.

Bestalde, Olabide Ikastolak Korrikak euskararen alde egin duen lan etengabea aitortu nahi du eta beren egin nahi ditu Korrikaren helburuak. Horregatik, Alfabetatze-Euskalduntze Koordinakundeak -AEK- bi urtetik behin antolatzen duen euskararen aldeko lasterketan parte hartzera dei egiten dizue gurasoei. Korrika Gasteiztik pasatzen denean **martxoaren 23an**, Olabide ikastolak 242.kilometroa erosi du: lekukoa 19:07etan Serafín Ajuria - Adriano VI ertzean hartuko dugu , Adriano VI - Abendaño - Díaz de Olano margolaria - Gasteiz hiribidetik jarraituz.

**Inoiz baino garrantzitsuago iruditzen zaigu Korrika Txikian eta Handian parte hartzea** eta horregatik animatzen zaituztegu denok, gurasook, ikasleok, lankideok eta lagunok parte hartzera euskararen aldeko ekintza honetan. Hantxe ikusiko gara lankideok eta lagunok parte hartzera euskararen aldeko ekintza honetan.

Por otro lado, necesitamos la ayuda de todos vosotros para la organización de la Korrika: todos aquellos que estéis dispuestos a ayudarnos en el recorrido o en la fiesta de la Plaza de los Fueros para repartir bocadillos, dadnos vuestro nombre, por favor. Así mismo, necesitamos saber qué alumnos de Primaria e Infantil van a acudir a la Korrika, por lo que os pedimos que rellenéis el papel y se lo deis al tutor antes del día 8 de marzo.

Los dibujos realizados por los alumnos de Ed. Primaria sobre la Korrika estarán expuestos en el centro cívico Hegoalde del 5 al 18 de marzo.

Así mismo, la Ikastola Olabide reconoce la labor que ha realizado en favor del euskera la Korrika y quiere hacer suyos los objetivos de ésta.Por eso, os invita a todos los padres de la ikastola a participar en esta carrera a favor del euskera que organiza la Coordinadora de Alfabetización y Euskaldunización -AEK- a su paso por Vitoria-Gasteiz **el 23 de marzo.** Olabide Ikastola ha comprado el kilómetro 242, cogiendo el testigo a las 19:07 en la esquina de Serafín de Ajuria con Adriano VI, continuará por las calles Adriano VI - Abendaño - Pintor Diaz de Olano y Avenida Gasteiz, igual que en la edición anterior.

**Participar en esta Korrika, tanto en la Txikia como en la de los mayores** nos parece más importante que nunca, por lo que os animamos a todos, padres/madres, alumnado, personal de la ikastola y amigos a participar en esta actividad en pro del euskara. Allí nos veremos.

**OLABIDEKO EUSKARA BATZORDEA**

- - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - - -

**Martxoaren 16an nire seme/alaba Korrika Txikira joango da**
**Mi hijo va a ir a la Korrika Txikia del día 16 de marzo**
**Martxoaren 8a** baino lehen tutoreari eman / Entregad al tutor/a antes del día **8 de marzo**

- Ikaslearen izen-abizenak / Nombre y apellidos del alumno/a: ______________________________________

______________________________________________________________________________

- Tutorearen izen-abizenak / Nombre y apellidos del tutor/a:______________________________________

______________________________________________________________________________

- Laguntzailearen izen-abizenak eta harremanetarako telefonoa / Nombre y apellidos y teléfono de contacto del colaborador/a: ______________________________________________________________

______________________________________________________________________________